

BEATRIZ FERNÁNDEZ

EUSKARA ETA  
HIZKUNTZARI BURUZ

HIZKETAN SEMEAREKIN



erein

EUSKARA ETA HIZKUNTZARI BURUZ  
HIZKETAN SEMEAREKIN

---

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 2017ko irailean*

Maketazioa:

Erein

Azala eta barruko irudiak:

Antton Olariaga

© Beatriz Fernández Fernández

© EREIN. Donostia 2017

ISBN: 978-84-9109-221-6

L. G.: SS-921/2017

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: [erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: [itxaropena@itxaropena.net](mailto:itxaropena@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

EUSKARA ETA  
HIZKUNTZARI BURUZ  
HIZKETAN SEMEAREKIN

---

Beatriz Fernández Fernández  
(UPV/EHU)

*Jon Otxoantezana Fernándezi  
euskara eta hizkuntza  
maita ditzan  
marrazketa, tekno eta mate beste*

## Esker ona

Irakurlerik gabeko libururik ez dago eta liburua izan aurretik, irakurle zintzo batzuk izan zituen izkribu honek. Gehien-gehienak institutueta irakasleak dira, gure gazteei irakasteko ahalegin betean ari diren profesional saiatu horietakoak, hauexek: Maite Arrizabalaga (Mendebaldea BHI, Gasteiz), Unai Elorriaga (Julio Caro Baroja BHI, Getxo), Miren Kareaga (Aixerrota BHI, Getxo), Iratxe Labajo (Miguel de Unamuno BHI, Bilbo), Juanan Sanabria (Angela Figuerola BHI, Sestao) eta Maiteder Uribarri (Bengoetxe BHI, Galdakao). Eurak izan ziren izkribuaren inguruko gogoeta egin zuten lehenak, eta gogoetarekin batera, iruzkin eta iradokizunak egin zizkidatenak. Baita Laura Mintegi, UPV/EHUko Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako irakaslea ere. Izan dadila euren aipamena nire esker onaren adierazgarri.

Bestalde, Ekain Larrinagak, Getxoko Udaleko Immigrazio Zuzendariak, nire eskura jarri zituen 6. kapitulua idazteko beharrezkoak nituen immigrazioari buruzko datu asko eta asko, batez ere Getxo udalerriaz. Eskerrak eman nahi dizkiot horregatik.

Izkribuaren zuzenketa xehea egin zuten, gainerakoan, Ane Berrok (UMR 7023, CNRS Paris 8 eta UPV/EHU) eta Patxi Goenagak (Euskaltzaindia), eta horri esker, besteak beste, heldu da izkribua liburua izatera. Dena dela, lanaren erantzukizuna, onerako zein txarrerako, nirea da eta ez beste inorena.

Jakina, libururik ez da argitaletxerik gabe, eta Ereinek eman dit bigarrenez, *oso denbora gutxian*, izkribu kuttun bat liburu bihurtzeko aukera paregabea. Eskerrik asko, beraz, lantalde guztiari eta batez ere Inazio Mujikari izkribua goitik behera zuzentzeagatik. Azkenik, Antton Ola-riagak jarri dio irudia liburuko ahotsari, gurean bizi diren bi marrazkizaleon pozerako.

Emaitza hauetara ekarri gaituen ikerketak Europar Batasunaren ikerketarako, teknologia garatu eta erakusteko Zazpigarren Esparru Programaren laguntza jaso du 613465 dirulaguntza hitzarmenaren bitartez. Orobat, Eusko Jaur-laritzak eta Espainiako Ekonomia eta Lehiakortasun Mi-nisterioak ere babestu dute lan hau, IT665-13 eta FFI2014-51878-P ikerketa proiektuen bitartez, hurrenez hurren.

# Aurkibidea

<b>1. Atarikoa: zer, nori, nork eta zergatik</b>	15
1.1. Zer, nori, nork, eta zergatik	15
1.2. FOXP2 ez da Izarretako Gerlako droide bat	18
1.3. Tan	21
1.4. For ju mala gissuna	26
1.5. Pipeline, Zazpi Miliako Miraria eta beste mirari batzuk Hawaiin	29
1.6. Genie (Aingerurik ez Los Angelesen)	34
<b>2. Zure aspaldiko Lego hura</b>	43
2.1. Hizkuntza Lego bat da	43
2.2. Gramatika Legoa muntatzeko eskuliburua da	44
2.3. Ikimilikiliklik	49
2.4. Hitzen labelak: kategoriak	52
2.5. Legoekin jolasean	54
2.6. Perpausen hezurdura	60
<b>3. Pulp fiction</b>	67
3.1. Istorio on baten oinarritzko osagaiak	67
3.2. Butch, boxeo borroka eta urrezko erlojua	71
3.3. Vincent Vega eta Jules Winnfield, Chevy batean hizketan	76
3.4. Otsoa jauna, arazo konpontzailea	81
3.5. Rol laguntzaileak	84
3.6. Urtu beltzera	87



<b>4. Eppur si muove</b>	91
4.1. Eppur si muove	91
4.2. Elemental	95
4.3. Aztarna	99
4.4. Galderak	100
<b>5. Lauantxoaburua</b>	103
5.1. Lauantxoaburua	103
5.2. Denporali	109
5.3. Nastapuntakoa, kukaña eta kukañi	112
5.4. Dialect coach	115
5.5. Mojojones en salsa [Moules à la sauce tomate]	118
<b>6. Haizeak bidali du handikan honuntza</b>	121
6.1. Haizeak bidali du handikan honuntza	121
6.2. ...geroztik hemen dabil gure andaluza	124
6.3. Hitzun askotakoak, hitzun bakarrekoak	127
6.4. Indoeuroparra, beste familia batzuk eta umezurtzak	134
6.5. Hondarraren negarra	136
<b>7. Zerupean lo</b>	141
7.1. Martzanako kaia gabon egun batez	141
7.2. Nahasmendua eta frustrazioa aro modernoan	146
7.3. Nerabe fluoreszentea	153
7.4. Errendiziorik ez	157

EUSKARA ETA  
HIZKUNTZARI BURUZ  
HIZKETAN SEMEAREKIN

---

# 1

## Atarikoa

*Zer, nori, nork, eta zergatik. FOXP2 ez da Izarretako  
Gerlako droide bat. Tan. For ju mala gissona.  
Pipeline, Zazpi Miliako Miraria eta beste mirari  
batzuk Hawaiiin. Genie (Aingerurik ez Los Angelesen)*

### 1.1. Zer, nori, nork, eta zergatik

Liburu hau euskarari buruzkoa da, eta euskara hizkuntza bat denez, hizkuntzari buruzkoa ere bada. Zu ez zara bereziki hizkuntza zalea, edo hobeto esanda, ez dituzu oso gogoko –ez dituzu batere gogoko– hizkuntzen inguruko irakasgaiak. *Euskara* tira, baina zuok *Lengua* deritzozuena, hots, *Lengua castellana* edo gaztelania, hori batere ez. *Ingelesa* ere ikasten duzu, baina horretan nagusiki ingelesez hitz egiten irakasten dizuete, eta horrek badu desafio puntu bat, entusiasmo handiarekin ez bada ere, irakasgaia eramangarriagoa-edo egiten duena. Liburu hau, hizkuntza zalea ez zaren horri, zuri idazten dizut, *Marrazketa*, *Mate*, *Fis-kim* eta *Tekno* nahiago dituen gazteari.

Ni, oso bestela, hizkuntza zale porrokatua naiz, bada-kizu, eta batez ere euskara maite dut nik, maitasunak berez dakarren sufrimendua gorabehera. Hizkuntzarik ez balego, ez dakit zertaz pentsatu eta idatziko nukeen, eta ez dakit ezta ere nondik aterako nukeen bizibidea; eta euskararik ez balego... , zer esan?, ikastolan umetan kantatzen genuen bezala, “euskara hilez gero,/ ez nuke nahi bizi”. Beste garai bat zen. Orain beste kanta batzuk kantatzen dituzte ikastolan, eta institutuan, egia esan, ez dakit kantatu ere kantatzen duzuen. Ez dut uste.

Alabaina, hemen gaude gu biok, semea bat eta ama bestea. Batek *Lengua gorrrrotatzen* duela dio; besteak, berri, euskararik gabe, bizi nahi ez. Nondik atera ote zaren pentsatzen dut batzuetan. Nire erraietatik, duda ere kendu. Hori bai, *hizkuntzaren genearekin* batera, antza denez, ez nizun hizkuntza zaletasunik transmititu, eta diotenaren kontra, etxean ikusten dena ez denez halabeharrez seme-alabek ikasten dutena, zaletasun hori ez dizut inola irakatsi. Nirea errua. Unibertsitatean, aldiz, ikasle asko eta asko izaten ditut urtero, zientoka ikasle, eta horiei bai irakasten diet hizkuntzetan zaletzen, edo horretan saiatzen naiz, behintzat. Orduan, zergatik ez zuri?

Utqidazu, beraz, erakusten hizkuntzak ederrak direla, eta euskara bezain ederra gaztelania, eta ingelesa. Bai, frantsesa ere bai, eta zeresanik ez mohawkera, irokiar Bost Nazioetako baten hizkuntza; edo urduera, kebaba erosteaz batera, sarri askotan Coca-cola erregalatzen dizueten getxoztar-pakistandarren hizkuntza, edo Ondarroako arrantza-ontzietan, behinola zure *aitxitxe Mariñela* bezala, ibiltzen diren ondarroar-senegalдар gazte beltzen wolofera... Ederrak dira, bai; ederrak nondik eta nola begiratzeko zaien, hori ere bai. New York Cityko *Chrysler* eraikina bezain txundigarriak dira, gainera, eraikinetik asko dutelako hizkuntzek. Hizkuntzalariok, arkitektoek ez bezala, ez ditugu eraikinak diseinatzeko. Hizkuntzaren diseinua berez ezarria dator, eta ezer gutxi egin dezakegu horri dagokionez hizkuntzalariok, baina bere nondik norakoak zein diren asmatzen saiatzen gara eta bere ederraz gozatzen.

Beharbada, ikastolan lehenago eta institutuan orain, ez duzue hizkuntzen ederraz gozatzeko ezta hizkuntzalaritzaren



Presenta  
FOR MI  
BERUA USNIA

pidgin



desafio handiei aurre egiteko aukerarik, zuon hizkuntza irakasleek bestela nahi luketen arren ziur aski. Lastima! Babilzko Euskal Herri batean, nik *Euskara* irakatsiko banie zu bezalako gazteei, hizkuntzaren diseinua eta bere ederra irakatsiko nizueke. Zu ez zintuzket hizkuntzalari bihurtuko, ezta nahi ere, baina hizkuntzari gorrrrotorik behintzat ez zenioke izango.

Utzidazu, beraz, erakusten hizkuntzetan pentsatzeak baduela zentzua, ez dela denbora alferrik galtzea hizkuntzei begira eta begira egotea. Ez zara zu, surflari amorratua zaren hori ere, itsasora alferrik begira egoten. Itsasoa, begiratuaz arakutzen duzu uretaratu aurretik, eta uretan ere, surf oholean etzanda, begiratua hantxe duzu, itxuraz (itxuraz bakarrik) ezerezean, baina benetan, ezerezetik sortzeardagoen olatua noiz bistaratuko zain. Hizkuntzalariok ere arreta berberaz begiratzen diogu hizkuntzari. Itsasoak zугan beste pasio sortzen du guban hizkuntzak, eta sinistu ala ez, batek besteak bezainbat sekretu ditu, itzelezkoak. Gutxi batzuk erakutsiko dizkizut hurrengo lerroetan. Liburu hau irakurri eta oraindik ere hizkuntzak maiteago-edo ez badituzu amaiera aldera, orduan bai, esku-oihala botako dut ringean eta kitto, amaitutzat eman dezala arbitroak gure arteko borroka.

## 1.2. FOXP2 ez da *Izarretako Gerlako* droide bat

C-3PO *Izarretako Gerlako* androide zoragarria da. Zeinek ez du gogoan? Zuk bai behintzat. *Izarretako Gerlako* IV. atalean (lehen film gogoangarrian), bera da hitz egiten lehena. Komunikatzeko sei milioi formatik gora ditu, pentsa. Aldamenean, R2-D2 izan ohi du, droide astromekaniko

bat, totolo txikia. Ez du hitz egiten, baina *dioena* ulertzen du C-3POk.

FOXP2, aldiz, izenak hala pentsaraz liezazukeen arren, ez da droide bat, ez androidea ez astroidea. *Izarretako Gerlan* ere ez duzu aurkituko, ez behintzat droide gisa. FOXP2 proteina bat da eta gizakiongan FOXP2 izeneko genean kodetuta dago. Hortaz, *Izarretako Gerlan* FOXP2 inork izanez gero, Han Solok du eta baita Leia printzesak ere; filmeko gainerako gizaki guztiek ere bai –filmean hizketan diharduten beste izaki bitxi guztiek, auskalo–. Proteina hori ez bagenu, ez genuke izango hizkuntzarik eta ezin izango genuke egokiro hitz egin.

Lehenago esan dizut hizkuntzaren genearekin batera ez nizula hizkuntza zaletasunik transmititu, eta ez dakit nik ba hizkuntzaren geneaz hitz egin daitekeen, metaforikoki ez bada behintzat. Ziur aski ez, baina inon bada hizkuntzaren generik, hori FOXP2 da, edo bera da behintzat hizkuntzarekin eta hizketarekin lotu den lehen genea. 7 kromosoman dago kokaturik.

*Nola jakin daiteke hori ba?* esango duzu. Kontatuko dizut. Bazen behin Ingalaterran KE izeneko familia bat. Familia hartan, amak gaitz bat zuen, *Hizkuntzaren Kalte Espezifikoa* zeritzona. Gaitzik ez zuen gizon batekin ezkondu zen eta lau alaba eta seme bat izan zituzten. Seme-alaba guztiek heredatu zuten gaitza, alaba bakar batek izan ezik, eta hogeita lau ilobetatik, hamaikak. Hiru belaunalditan zehar agertu dira gaitzaren aztarnak KE izeneko familian.

Kaltea duten senideek arazoak dituzte hizkuntzarekin, osasuntsuak garen hiztunon begietara arazo harrigarriak direnak. Myrna Gopnik izeneko hizkuntzalari kanadarrak lan egin zuen eurekin, eta bere ustez (beste aditu batzuen

iritziaren kontra), kalte horrek zerikusia du gramatikarekin. Hori probatzeko, esperimentu txiki bat egin zuen (besteak beste). Gopnik-ek marrazki bat erakusten zien gaixoei, txoritxo bat zirudiena, eta esaten zien: *This is a wug* [Hau wug bat da]. *Wug* ingelesez asmatutako hitz bat da, ez da benetako hitza, nahiz eta ingelesezkoa izan litekeen (euskararena, ordea ez, bestela, zein euskal hitzek du halako itxurarik?). Ondoren, Gopnik-ek erakusten zien halako bi txoritxo zituen beste marrazki bat, eta esaten zien: *Now there are two of them; there are two...* [Orain halako bi daude; ... dira]. Gopnik-ek ikusi nahi zuen ea gaixoak kapazak ote ziren pluraleko forma sortzeko, eta zuk, ingelesez zertxobait dakizun horrek ere, erraz asmatuko zenuke: *there are two... wugs*. Hori da: *-s* pluraleko morfematoa hartu eta *wug* hitzari gaineratuko zenioke. Erraz samarra, ezta? Hiztun osasuntsu baten begietara beti ere. Ume txiki ingelesdunek ere erraz asmatzen dute erantzuna. Alabaina, kaltea zuten hiztun haiek ezin zuten *wugs* forma sortu. Gopniken ustez, plurala sortzeko mekanismoa falta zitzaien, gramatika kaltetua zutelako. Jakina, pluralarekin batera, beste arazo batzuk zituzten gramatikan, eta euren hizketaldian ohikoak ziren gramatika akatsak. Kontua da familia horretako kideek kalte hori zutela FOXP2 genean izandako mutazio zoritxarreko baten ondorioz. Hizkuntza eta gramatika geneetan idatzita dator, beraz, ez zure baitxilergoko *Euskara* eta *Lenguako* liburu aspergarri samarretan.

Eta ez, Darth Vader-ek ez du halako kalterik, hizketan zerbait arraro antzematen zaion arren. Ez du gramatika akatsik, baina hizketa motela eta nekoso du. KE familian kaltea duten hiztunek ere nekez hitz egiten dute,



nekez eta geldiro; ahalegin handia egin behar dute mintzatzeko direnean. Alabaina, KE familian ez bezala, Darth Vader-en kalteak ez du geneekin zerikusirik. Izatez, Indarraren Alderdi Ilunean hondoratu aurretik, Anakin Skywalker zen garaian, gainerako gizakiek bezalaxe hitz egiten zuten. Gerora, baina, Indarraren Alderdi Ilunean, Obi Wan, bere maisua izan zenarekin borrokan ari zela, sumendiaren laba erreka batean erori zen eta horrek erredura izugarriak eragin zizkion, gogoratzen? Berre-raiki behar izan zuten gero eta protesik mekanikoak ezarri zizkieten. Mozorroa ere badarabil harrezkero, aurpegia estaltzen diona, eta arnasketa aparatua ere bai. Arnasa hartzen entzuten diogu isilik dagoenean ere. Berea ez da kalte genetikoak, ez da berezko kaltea, gerora gertatutakoa baino, ez behar baten ondorioz. Halaxe gertatzen dira batzuetan hizkuntzaren kalteak.

### 1.3. Tan

Halabeharrek bizitza kolpatzen du sarri. Halabeharrek kolpatzen ditu gizakiak eurak ere. Motorrean istripu larri bat eta, *zast*, garunean kalte. Eta garuna kaltetzen denean, kalte horrek hizkuntza bera ere kaltetu dezake, larriki kaltetu ere.

Kalteetatik irakaspena ateratzea gogor samarra da edozeinentzat, baina irakasbidea latza izanagatik, ederra ere izan daiteke: garuna kaltetuz gero, hizkuntza bera kaltetzen bada, horrek esan nahi du, bistan denez, hizkuntza garunean dagoela. Pentsa, hara non hizkuntza, *Lenguako* zure liburuan existentzia zozo samarra duena, garunaren eremu misteriosuan kokatzen den bat-batean! Alajaina!

Institutuan zuk ez, baina zure lagun kuttun batzuek *Anatomia* ikasten dute. Ondokoa anatomia saio txiki bat da paragrafo bakarrean bildua.

Garunak intxaur baten itxura du. Bi ataletan banatuta dago, intxaurrak bezalaxe, eta bi atal horiek bata besteari lotuta daude erdialdetik. Garunaren bi atalei *hemisferioak* deritzegu eta *corpus callosumak* lotzen ditu bata bestearekin. Hemisferio horien azalari *cortexa* deritzo eta bertan, zizare itxurako egitura anatomiko txiki batzuk daude: *zirkunboluzioak* deritze tontorrei eta *ildoak* haien arteko bailarei. Bestalde, hemisferio bakoitza lau *lobulutan* banatuta dago: *frontala* (aurrekoa), *parietala* (erdikoa), *temporal* (albokoa) eta *okzipitala* (atzekoa). Horixe garunaren oinarriko arkitektura. Nahikoa dugu abiatzeko.

Ikertzaileek erakutsi dute hizkuntza nagusiki bi hemisferioetako batean dagoela kokatua, zehazki ezker hemisferioan. *Wada testa* erabiltzen dute neurokirurgialariek gaixo bati garunean ebakuntza egin aurretik, hizkuntza zein hemisferiotan daukan jakiteko. Xehetasun teknikoak alde batera, substantzia bat txertatzen zaio gaixoari ezker edo eskumako karotidan; ezker karotidan txertatuz gero, ezker hemisferioa indarge (lo bezala) gelditzen da substantziaren eraginpean, eta alderantziz. Ondoren, gaixoari hizkuntzari buruzko eta bestelako testak eginez, jakin daiteke hizkuntza indarge edo indarrean duen, eta ondorioz, zein hemisferiotan *lateralizatuta* dagoen, hau da, bi hemisferioetatik zeinetan kokatuta dagoen. Gizaki gehien-gehienok, ezker-hemisferioan dugu *lateralizatuta* hizkuntza. Eskuz (eta ez nahitaez bihotzez) eskuindar direnen artean, %95etik gora dabilta hizkuntza ezker-hemisferioan daukatenak; ezkertiarren artean, berriz, %85

inguru dira. Ikusten duzunez, hizkuntzari dagokionez, ezkerre da nagusi.

Eta behin ezker hemisferioan, lobulu frontalera (aurrekora) eta lobulu tenporalera (albokora) hurreratu beharra dugu, hizkuntzaren gordeleku zehatzaren bila gabiltzala. Goazen lehenik lobulu frontalera. Tan, halabeharrak kolpatutako gaixoaren istorioak garamatza bertara, bertara eta XIX. mende urrun samarrera. Mende hartan, bazen mediku frantses bat, edo hobe, mediku, kirurgialari, neurologo eta antropologoa, Wikipediak dioenez. Paul Broca zuen izena. Ume miraria eta maisu distiratsua. Charles Darwinen ideien defendatzaile gartsua izan zen, nahikoa jarrera matxinotzat jotzen zena elizaren begietara garai hartan. Asko konta genezake bere historiara begira, baina dudarik gabe, Tanekin du zerikusia, Broca horren eza-guna egin zuen aurkikuntza handiak.

Izatez, Tanek Leborgne izena zuen, baina ezizena jarri zioten, antza, esan zezakeen hitz bakarra *tan* zelako. Tanek hizkuntza galera zuen. Dena dela, Tanek ulertzen zuen esaten ziotena eta gai zen adierazi nahi zuen guztia, hitzez ez, bestela adierazteko. Tan hil eta egunetara, autopsia egin zion Brocak eta garuna aztertu zuenean konturatu zen Tanek lesio bat zuela ezker hemisferioko lobulu frontalean, zehazki hirugarren zirkunboluzioan. Brocak, kalte horri egotzi zion Tanek hitz egiteko zuen ezintasuna. Orduz gero, *Broca eremua* deritzo garunaren eremu horri. Ipin itzazu atzamar puntak ezkerraldeko lokian, bai, lokian, film batzuetan norberak bere buruaz beste egiteko, pistolaren kanoia ezartzen duen gune anatomiko horretan. Bertan dago Broca eremua eta bertan kaltea duten hiztunen patologiarik *Broca Afasia* deritzo.

Broca afasikoek hitz gutxi ahoskatzen dituzte –pentsa, Tanek bakarra–, eta oso neke handiz. Telegrafikoki hitz egiten dute, gainera, baina batez ere, gramatikan dute kalterik handiena. *Agramatismoa* izaten da Broca Afasiaren sintometako bat. Gaixo agramatikoek, adibidez, ez dute aditzik jokatzeko eta preposizioak ezabatzen dituzte (preposizioak dauden hizkuntzetan, hala nola, gaztelaniaz eta ingelesez). *Hitz lexikoak*, hots, esanahia duten eta hiztegi batera begira aurki ditzakezun hitz horiek gordetzen dituzte, baina ez *hitz funtzionalak*, hau da, esanahi lexikorik ez dutenak eta gramatika zereginak betetzen dituztenak (preposizioek ez dute esanahi lexikorik eta betebeharrak gramatikalak dituzte, beraz, hitz funtzionalak dira). Adibidez, ingelesezko *hospital* ‘ospitale’ hitza gordetzen dute; ez, ordea, *in* preposizioa edo *the* determinatzailea. Begira paragrafo txiki hau ikusteko hitz funtzionalen gabezia gaixo baten hizketan:

Ah... Monday... ah, Dad and P.H. (gaixoaren izena) and Dad... hospital. Two... ah, doctors, and ah... thirty minutes... and yes... ah... hospital.  
[Eh... astelehena... eh, aita eta P.H. (gaixoaren izena) eta aita... ospitale(a). Bi... eh, mediku, eta eh... hogeita hamar minutu... eta bai... eh... ospitale(a)].

Halakoxe diskurtsoa duten gaixoei, alabaina, ondo ulertzen dute esaten zaiena, ez dute ulermen arazorik izaten; hitz egiterakoan sortzen zaie arazoa, ez beste norbaiten esaten diena ulertzerakoan. Beste batzuetan, aldiz, kontrako norabidea hartzen du halabeharrak. Badira itxuraz inongo eragozpenik gabe hitz egiten duten gaixoak.

Hizketan entzungo bazenie, diotenari erreparatu gabe, pentsa zenezake beste edozein hiztunen jarduna bezalako-  
xea dela euren, zeren ahoskera ona dute eta erritmo eta in-  
tonazio egokiarekin jarduten dute. Euren diskurtsoa ja-  
rraitua da eta jariakorra, beraz. Alabaina, behin arretaz  
adituz gero, berehala ohartuko zinateke ezetz, diskurtso in-  
koherente samarra (edo erabat inkoherentea) dela. Ba-  
tzuetan, gainera, hitzak ordezkatzan dituzte eta hitz be-  
rriak, hots, *neologismoak* sortzen dituzte. Hiztun hauek  
Broca afasikoek ez bezala, oso ulermen eskasa eta mugatua  
dute; euren hizketa bera ere ez dute ulertzen eta, Broca afa-  
sikoak ez bezala, ez dira konturatzen euren akats linguis-  
tikoez. Ez dute kaltea lobulu frontalean, lobulu tenpora-  
lean, hots, alboko lobuluan. *Wernicke eremuan* dute kaltea  
(atzamar puntak eraman itzazu orain ezker belarriaren  
atzealdera, hortxe, gutxi gorabehera). *Wernicke afasia* dute.

Lore Erriondok bere doktore tesian, Wernicke afasia  
duen euskaldun baten jarduna jasotzen du. Gizona da, do-  
nostiarra eta 72 urte ditu. Euskaldun elebiduna da eta lan-  
gilea izandakoa. Halaxe dio:

Gabian geyena, gabian, gabian geyena bai zeak, itten este,  
txe, txi, ixentra, zuluak itten bestientzako gabez ta bestiak  
nola esaten dia oik este, trintxe, trintxeras. Oyek itten  
aitzen giñen, ta ola, ta gero denborakin, ba eztakit zenbat  
denboraz zea etorri zian atzea askatasuna beste beste aldea  
pasatzeko bai ta zea denbora iñ arte, osea, beste guziyak  
etorri zian..., este etorri zian zea nola iza izatea zea zen-  
tzi, zentzi ya lizentziya eta ya etxea geo.